

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

### NEKAZARITZA SAILA

#### MENDI ZERBITZUA

**Jendaurrean jartzea Aramaioko Udalaren onura publikoko Murumendi/Murugain izeneko mendia (Aramaioko udalerriko 6 poligonoa, 105 katastro lurzatia) I. B. M. L.ren katastro titulartasuneko lurzatiarekin (Aramaioko 6 poligonoa, 103 katastro lurzatia) muga egiten duen zatian mugatzeko 286-21 espedientea, eta erreklamazioak egiteko epea irekitzea, Arabako Lurralde Historikoko Mendien Foru Arauan ezarritakoaren arabera**

Aramaioko Udalaren Murumendi/Murugain mendi publikoa (Aramaioko udalerriko 6 poligonoa, 105 katastro lurzatia) I. B. M. L.ren katastro titulartasuneko lurzatiarekin (Aramaioko 6 poligonoa, 103 katastro lurzatia) muga egiten duen zatian mugatzeko 286-21 espedientearen barruan, behin mugaketaren xede den tartearen neurketa lanak eginda, Mendien martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan ezarritakoaren eta otsailaren 22ko 485/1962 Dekretuaren bidez onetsitako Mendien Arautegiaren 120. eta 121. artikuluetan xedatutakoaren arabera, jakinarazten da espedientea jendaurrean jarriko dela Aramaioko Udalaren bulegoetan (Bixente Goikoetxea 1, 01160 Aramaio), interesdunek aukera izan dezaten hura aztertzeko, hamabost egun baliodunetz, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Era berean, iragarki hau argitaratu ondorengo hogeita hamar egun baliodunetan, onartu egingo dira zuzenbidearen arabekoak diren erreklamazioak; Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuari zuzendu behar zaizkio, eta Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkez daitezke (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz), edo Aramaioko Udalaren bulegoetan (Bixente Goikoetxea plaza 1, 01160 Aramaio).

Neurketa lanen kontra erreklamazioa aurkezteko, beharrezkoa da neurketa lanetan han bertan egon izana norbera edo norberak izendatutako ordezkari bat.

Jabetzari buruzko erreklamazioez den bezainbatean, erreklamazioan berariaz aipatu behar da administrazio bidea amaitzeko asmoz aurkezten dela, gero arlo zibileko epaitegietara jotzeko alde aurreko izapide gisa.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 20a

*Nekazaritza zuzendaria*

**MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**